

### 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak hornitzaileekin egingo du aliantza, negozioa optimizatzeko eta gure enpresa aurrera eramateko. Horrela gure karritua eraikitze beharrezkoak diren prezioen kostua murriztuko dugu eta gure enpresaren irabaziak handiagoak izango dira, baita dirua galtzeko arriskua murriztuko dugu ere.

Aliantza egingo dugu honako enpresa hauekin:

- FRIGELU: Karritu normalak egiten dituen enpresarekin, haiek ekoiztuko baitigute gure karritu bererzien oinarria den karritu txikia.
- IMA: Karritua gurpildun aulkira itsastea ahalbidetzen duen imana fabrikatuko duen enpresarekin
- SIMEL S.p.A. : Pintxa mekanikoaren motorra fabrikatuko duen enpresarekin.

Eta azpikontratatu bat egingo dugu, hain zuzen ere ingeniari bat kontratatuko dugu, gure pintxa mekanikoaren diseinua egingo duena, eta horren berrikuntzak egiteaz arduratuko dena. Horretarako Cimepi (colegio de ingenieros mecánicos de Pichinchi) izeneko enpresarekin egingo dugu aliantza, bertan lan egiten duen ingeniari bat azpikontratatu dugulako.

Horretaz gain gobernuarekin aliantza egiten saiatuko gara, haiengandik laguntza ekonomikoa jasotzeko eta gure arriskuak murrizteko, izan ere behar sozial bat betetzen duen produktu bat baita. Horrela, gure enpresaren ziurgabetasuna murriztu eta arrisku ekonomikoa ere baxuagoa izango da.

Aliantza hauek gure enpresari onurak ekarriko dizkio; alde batetik gure produktua egiteko hornitzaileak beharrezkoak ditugulako eta beste alde batetik gure hornitzaileei egingo diegun publizitateari esker kostuak murriztuko ditugulako. Beste aliantzen bidez ere arriskuak eta kostuak murriztuko ditugu. Gainera aliantzak egiteak beste enpresei ere onurak ekarriko dizkie haien produktuak guri saltzen dizkigutelako.